

Aberri-Eguna Iruña'n

Euzko Gaztedi, 1967-03/04: 1.

Guda ezkerero iru Aberri-Egun ospatu ditugu Euzkadi'n agirian, ez agirian bakarrik, baita desapio nabarmenean ere.

Lenengoa, ta ausartsuena, Gernika'n 1964'go urtean ospatutakoa izan zan. Ez genekien gure jendeak nola erantzungo zuan, bear aña ausartuko ote zan, eta ez genekien gure erriaren zanpatzaileak nola erantzungo zuten. Danok dakigunez, Gernika'n gertatu zanarekin arrituta geratu ziran gure arerioak; eta, egia esateko, gu ere pixka bat bai. Arrezkerero, gure zanpatzaileak bildurtzen asi ziran, eta gu indarberritzen joan gera.

Gernika'n izan gendun ba, lenengo alkar-aurkeztea, ta ortzak estatua elkarri begira geratu giñan.

Bigarrena, Gipuzkoa'ri zetorkionez, Bergara'n egin zan. Ez giñan oraindik nagusietera joan; lenago Gernika'n bezela, gero Bergara'ko eusko gogoarentzako kemen billa bezela, gure aintzin-itzeko uri eder onetara jo genduan. Bergara'ra, lenago Gernika'ra baño obeto gertuta joan giñan; bañan arerioa ere bai. Ez zan gogorkeri edo indarkeri nabarmenik sortu; bañan ixilpeko guda gogorra, bixia, axalera urten zuan noizean bein; eta gure erria urten zan garaille berriz.

Iragarren Aberri-Eguna Gazteiz'en ospatu gendun. Au zan gure uri nagusian gertatzen zan lenengoa. Gure arerioak zai-zai zeuden, eta al zituzten alde-zurreko neurri guziak artu zituzten. Ala ere, eragozpide ta kiñu itxusi ta indarkeri guziak erabillita ere, gure erriaren gogo nabarmen-nabarmen agertu zan Gazteiz'en eta Araba osorako aberri'lan ederra egin zan.

Bañan lengo iru Aberri Egun oiek gogorak eta probatzekoak izan ba ziran ere, ez degu euskotarrok guda ezkerero aurtengo Aberri-Eguna'ren garrantzikorik ezer gertatu.

Zergatik?

Naiz eta Naparroa gure ixtorian anai zarrena ta nortasun geiena duna izan, beti izan degu euskotar abertzaleok Naparroa ziara gurekin erri bezela eramateko eragozpide bat, eta guda surtu zanean, batez ere, karlista zarrak gure zoritxarreko anai arerioak bezela jokatu ziguten.

Bañan karlista zarrak oso zartu dira, ta beren eusko jatorriko semeak, gaurko gazteak, bere erriaren gaurkotasunean gogoak finkatu ta beste bizkaitar, gipuzkoar eta arabar anaiekin ba datoz. nabarmen, gañera! Naparra berri bat esnatzen ari dala ikusten ari gera. Ala ere, Iruña'ko Aberri-Egun au zalla ta desapio aundikoa dala ezin ukatu. Gure erria, beita Bidaso'z aruzkoa ere, Iruña'n gertatzen danaren zai-zai dago.

Itxaso'z onuntz, urruti, gaudenok, berriz, zer esanik ez.

Aberri-Eguna, Bepizkunde eguna degunez, aurtengo onek Naparro'ko berpizkundearen ikur nabarmen bat ekarri deigula; gure Irakasle Sabin'ek zion bezela, bai baitakigu Naparroa abertzale egiten dan garaiean bertan gure erriaren berpizkundera bete-beteko dala.

Aurten ere, lengo urtetan bezela, zigorra ta kartzela desapiatzen dituzten anaie dijoakio gure asmoa ta gure anaitasuna. Ez guri dagokigun lana, ezta berea ere, ez dira alperrik egiñak izango. Aberri-lanak luzeak eta mikatzak eta minkorrek izan oi dira beti. Gureak ere ala bear. Bañan lan eta min oiek bere bizkarrean artu ta bere bidea bukatzeko indarra duten erriak dira askatasuna merezi dutenak.

Ziur egon ditzela gure zanpatzalleak:

Gure erriak ez du bere askatasun ordua arte etsiko.